

# Baiona Berria/L'alternative pour Bayonne

## Gure mugarri politikoak

1) Baionako arazo berezietz haraindian (ikus, nahi duten guzien laguntzarekin lantzen ari den proiektua), Euskal Herriarendako alternativa orokorra defenditzen dugu. Hala nola, Iparraldearen lurraldetasun ezagupena aldarrikatzen dugu eskumen zabaleko instituzio berezi baten bitartez. Halaber, euskaldunen hizkuntz eskubideen ezinbesteko berma gisa euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen dugu bai eta bere berreskurapenaren aldeko politika serioa ere. BATERA plataforma sutengatzen dugu eta besteak beste departamenduen sortzeari buruzko herritarren kontsulta eskaera

Euskal Herriak bizi duen indarkeriazko gatazka egoera gainditu nahi dugu, horretarako bide baketsuak definituz (eraikuntza nazionala, desobediencia zibila). Aldi berean, Podere publikoei etengabeko deia luzatzen diegu gatazka honen oinarrian diren arazo politikoei buruzko negoziaketa baten beharra kontutan har dezaten. Bistan dena funtsezko arazoaren konponbide politikoak presoen amnistia ekarri behar du.

Zazpi probintzietako Euskal Herria eraikitze lanetan ari gara, euskal populuaren eskubide politikoak bermatzeko bai eta mundializazio uniformatzaile nahiz europar eraikuntzaren kontestuan bere biziraupena eta geroa segurtatzeko ere. Horri begira, Udabiltzaren desmarta oso inportantea iduritzen zaigu eta Zazpiak Bat proiektuaren tresna garrantzitsua den egitura honen berrantolaketa eta sendotzearen alde gaude. Sortu nahi dugun Euskal Herria, bertan bizi diren eta patu amankomuneko komunitatearen partaide sentitzen diren guziena izanen da, beren jatorria, hizkuntza eta kultura edozoin izanik ere.

2) Bizitzeko beren lana baizik ez dutenak defenditzen ditugu bai eta ere, lan hori galdu duten eta gizartean baztertuak direnak, esploazioa jasaiten duten guziak, menperatuak diren emazteak eta gazteria. Halaber etorki-

nentzako eskubideen berdintasuna aldarrikatzen dugu. Defenditzen dugun gizarte proiektuak jende gehien beharrei erantzutea du helburu nagusia eta ez konkurrentzia bortitza edota etekin biltzea. Gizarte proiektu honetan, denbora librearen konkista ardatz nagusia izanen da.

Ondoko belaunaldien interesak ere defenditzen ditugu, ingurugiroa eta baliabideak aurrezten dituen garapen eredu baten alde borrokatuz. Halaber gizon emazte gehienak miseria eta gosean atxikitzen dituen munduaren gaurko antolaketa aldatu nahi dugu goitik behera. Munduko populazio osoaren onerako eta berdintasunerako garapen zuzena aldarrikatzen dugu. Euskal Herria, laborari sobera den eremu eta espekulazio alortzat daukatena ere gogor salatzen ditugu. Euskal Herriko Laborantza Ganbarak kalitatezko laborantza iraunkorra eta autonomoaren alde eramaiten duen lana sutengatzen dugu. Jitez aldaturiko landareen debekatze aldarrikatzen dugu.

3) Abertzaleek demokrazia parte hartzailea defenditzen dugu, nun herritarrek eta mugimendu sozialek Herriko Etxeak hartzen dituen norabide eta erabakietan eragina izanen dute. Ongi baino hobeki badakigu sozial aldaketak eta aintzinamendu politikoak ez daitezkeela gainetik eta instituzioetatik bakarrik etor. Gizartearen mobilizazio eta parte hartzea dira gure iharduera politikoaren oinarrian.

4) Pundu guzi horietan hemengo jaunttoen eredutzat har daitekeen Grenet bezalakoei buru egiten diegu. Jendearen parte hartzea 6 urteroko bozketan mugatu nahiko luketen politikarien nagusikeria eta larderia salatzen ditugu. Azkenik FN-eko hedapen eta ideia arrazistak etengabe borrokatzen eta tratatzen saiatuko dugu.

<http://baiona-berria.hautefort.com/about.html>